



JOSU IÑAKI ERCORECA
GERVASIO, CONSEJERO DE
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y
JUSTICIA Y SECRETARIO DEL
GOBIERNO VASCO

JOSU IÑAKI ERCORECA
GERVASIO JAUNAK, EUSKO
JAURLARITZAKO IDAZKARIA
ETA HERRI ADMINISTRAZIO ETA
JUSTIZIAKO SAILBURUAK

CERTIFICO:

EGIAZTATZEN DUT:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 17 de junio de 2014 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko ekainaren 17an egindako bilkuran erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

PROPUESTA DE ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA EL PLAN DE INNOVACIÓN PÚBLICA DEL GOBIERNO VASCO 2014-2016.

ERABAKI-PROPOSAMENA, EUSKO JAURLARITZAREN BERRIKUNTZA PUBLIKOAREN PLANA -2014-2016-ONARTZEKO DENA.

Este Plan de Innovación Pública 2014-2016 forma parte de la estrategia global del Gobierno Vasco para la presente legislatura y responde al compromiso del programa de Gobierno de "Profundizar en la reforma y modernización de la Administración Pública, definiendo y poniendo en práctica una Estrategia de Innovación Pública de Euskadi, orientada a la mejora en la atención y el servicio a la ciudadanía facilitando su relación con todas las Administraciones Públicas", asumiendo el reto de avanzar hacia una Administración Pública abierta, eficaz, eficiente e innovadora.

Berrikuntza Publikoaren Plana 2014-2016 delako honek Eusko Jaurlaritzaren legealdi honetarako estrategia orokorraren osagaia da eta Gobernu Planaren honako konpromisoari erantzuten dio: "Herri Administrazioaren erreforman eta modernizazioan sakontzea, Euskadiko Berrikuntza Publikoaren Estrategia bat zehaztuz eta gauzatuz, herritarrei zuzentzen zaien artapen eta zerbitzua hobetzera bideratutakoa, herritarrek herri-administrazio guztiekin dituzten hartu-emanak erraztuz". Honela, irekia, eraginkorra, efizientea eta berritzailea izango den Administrazio baterantz aurrerapausoak emateko erronka bere gain hartuz.



De acuerdo con el reto planteado, este Plan de Innovación Pública se fija los siguientes objetivos estratégicos:

Erronka honi erantzuteko, Berrikuntza Publikoaren Plan honek honako helburu estrategiko hauek finkatzen ditu:

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> ✓ Administración abierta: Promover la transparencia, la participación y la colaboración en la Administración pública. ✓ Administración eficaz: Desarrollar una oferta de servicios de calidad y accesible por diferentes canales (presencial, teléfono, Internet). ✓ Administración eficiente: Mejorar la eficiencia en la gestión administrativa, adecuando la organización, implantando nuevos modelos de gestión y realizando un uso inteligente de la tecnología. ✓ Administración innovadora: Promover la innovación en la Administración involucrando a la ciudadanía y a los profesionales públicos en el diseño, la gestión y la evaluación de las políticas y de los servicios públicos. | <ul style="list-style-type: none"> ✓ Administrazio irekia: Administrazio publikoan gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea. ✓ Administrazio eraginkorra: Hainbat bide erabiliz (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet...) eskura daitezkeen kalitatezko zerbitzuen eskaintza garatzea. ✓ Administrazio efizientea: Administrazio-kudeaketan efizientzia hobetzea; horretarako, erakundea egokitu, prozedurak erraztu eta teknologia eguneratu behar da. ✓ Administrazio berritzailea: Administrazioan berrikuntza sustatzea, herritarrak eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan. |
|--|---|

Estos objetivos estratégicos se despliegan en los seis ejes siguientes:

Helburu estrategiko hauek honako ardatzetan garatzen dira:

1. Transparencia y buen gobierno,
2. Interacción con la ciudadanía,
3. Adecuación organizativa,
4. Mejora de la gestión,
5. Administración electrónica y
6. Innovación desde la co-creación.

1. Gardentasuna eta gobernu ona,
2. Herritarrekin elkarreragina,
3. Antolaketaren egokitzapena,
4. Kudeaketaren hobekuntza,
5. Administrazio elektronikoa eta
6. Elkarrekin sortuz berritzea.

En estos seis ejes se agrupan un total de 28 proyectos y 46 subproyectos.

Sei ardatz hauek orotara 28 proiektu eta 46 azpiproiektu biltzen dituzte.



Este Plan de Innovación Pública 2014-2016 consta, además del documento principal del Plan, de dos Anexos: uno de Fichas de Proyectos y Subproyectos y otro de Plan de Evolución de la Plataforma Común de los Servicios Electrónicos (PCSE) 2014-2016.

Habiéndose emitido los informes de la Dirección de Coordinación, de la Dirección de Economía y Planificación, de la Dirección de Presupuestos y de la Oficina de Control Económico, procede su elevación al Consejo de Gobierno para su aprobación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Administración Pública y Justicia, previa la correspondiente deliberación, en la sesión celebrada el 17 de junio de 2014, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

Berrikuntza Publikoaren Plana 2014-2016 delako honek, Planaren dokumentu printzipalaz gain, Eranskin bi ditu: bata, proiektu eta azpiproiektuen fitxak dituen, eta bestea, Zerbitzu Elektronikoen Plataforma Erkidearen (ZEPE) Bilakaera Plana 2014-2016 delakoa.

Koordinaziorako Zuzendaritzak, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, Aurrekontu Zuzendaritzak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin dituztela, Jaurlaritzaren Kontseiluan aurkeztuko da, horrek onar dezan.

Horrenbestez, Herri Administrazio eta Justizia sailburuak proposatuta, eta beharrezko gogoeta egin ondoren, Gobernu Kontseiluak 2014ko ekainaren 17an egindako bilkuran, ondoren aipatzen den erabakia hartu zuen

ACUERDO

ERABAKIA

Primero.- Aprobación del Plan.

Aprobar el Plan de Innovación Pública del Gobierno Vasco -2014-2016- que figura como anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Remisión al Parlamento.

Este Plan se remitirá al Parlamento Vasco para su conocimiento, al efecto de realizar el oportuno seguimiento de la acción de Gobierno.

Lehenengoa.- Planaren onartzea.

Akordio honen Eranskinean jasotzen den Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren Plana 2014-2016 onartzea.

Bigarrena.- Legebiltzarrera bidaltzea.

Plan hau Eusko Legebiltzarrera igorriko da, hark planaren berri izan eta gobernu-ekintzaren jarraipen egokia egin dezan.

**Tercero.- Sistema de seguimiento y evaluación del Plan.**

Se elaborará, anualmente, un informe de seguimiento del Plan y, a la finalización del mismo, un informe de evaluación que permita conocer el grado de desarrollo de las actuaciones y el grado de consecución de los objetivos establecidos, conforme a los indicadores que se detallan en el cuadro de mando del Plan”.

**Anexo al Acuerdo:
Plan de Innovación Pública del
Gobierno Vasco -2014-2016.**

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 17 de junio de 2014.

Hirugarrena.- Planaren jarraipen eta ebaluazioaren sistema.

Urtero Planaren jarraipen-txostena egingo da eta, Plana bukatzean, ebaluazioaren txostena egingo da, ekintza bakoitzaren garapen-maila eta ezarritako helburuen lorpen-maila ezagutu ahal izateko, Planaren aginte-koadroan zehazten diren adierazleen arabera”.

**Erabakiaren eranskina:
Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza
Publikoaren Plana -2014-2016.**

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 17an.